



REALAREN BAZKIDE KANPAINA. 26.973 bazkide ditu Realak egun, eta kopuru horri eutsiko balio ia 6 milioi euroko diru sarrera izango luke. Batez beste, Realeko bazkide izateak 228 euro balio du. Hitzartu bezala, %11ko igoera izango da aurten.

Helburua, egungoei eustea

Datorren astean martxan jarriko den bazkide kanpainan Realak ez du igoera nabarmenik espero



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Demetradzek Denoueixen gustukoa izan nahi du

George Demetradze, oraindik orain Realeko jokalaria dena, atzo hasi zen Zubietan entrenatzen. Aurrelari georgiarra Errusiako Alania taldean aritu da Realak utzita, baina behin kontratua amaitu ondoren, berriz ere Realera itzuli da. Talde txuriurdinean ez du fitxarik izango, atzerritarrei dagokien jokalarik kopurua beteta duelako Realak. Jo-

kalariak Realean geratu nahi du. Oso zaila izango duela jakin arren, datorren hilabetean Denoueixen gustukoa izaten saiatuko da. Utzita aritzeko bideskaintza badituela ere aitortu zuen atzo; Belgikako Brujas taldearena bata, eta Ukrainako Metalurg taldearena bestea. Atzo, bere kasa entrenatzen Zubietan.

Jon Balenziaga | DONOSTIA

Realak ez du uste taldeak egun duen kirol egoera oparoak bazkide kopurua nabarmen igozten lagunduko duenik. Igoera txiki bat izatea espero du, baina datorren astean hasiko den kanpainari begira, egungo 26.973 lagunei eustea jarri du helburutzat.

Iñaki Otegi Realeko gerenteak atzo onartu bezala, Anoetan une honetan libre dauden eserlekuak ez dira gehientsuenen gustukoak. Bere egunean hitzartu bezala, batez beste %11ko igoera izango da, eta egun dauden 26.973 lagunek berrituko balute, Realak sei milioi euroko diru sarrera izango luke. Igoerak igoera, Otegi esandakoaren arabera, Reala da Espainiako Lehen Mailan dauden talde guztien artetik merkeenarikoa bazkide egiteko. Valladolid eta Espanyol dira soilik merkeagoak. 2003. urtean Realeko bazkide izateak, batez beste, 228 euro balioko du.

Talde txuri-urdinak egun zehatz batzuk jarri ditu bazkide egin nahi dutenentzat, baita lehendik bazkide izan, baina Anoetan duten eserlekua aldatzeko asmoa dutenentzat ere. Dena den, gaurtik hilaren 20ra bitartean, Realaren bulegoeta-

JAKINGARRIAK

ABONU BERRITZEAK. Banku bidez helbideratuta dutenei abenduaren 20an egingo zaie kargua. Helbideratuta ez dutenek abenduaren 20tik urtarrilaren 3a bitartean egin beharko dute diru sarrera, Kutxan. Iazko bazkide txartelak balio du aurten ere Anoetan sartzeko.

BAZKIDE EGITEKO. Abenduaren 23, 24 edo 26an joan behar da Anoetako bulegora. 24an goizez bakarrik izango da zabalik.

ESERLEKUA ALDATZEKO. Lehendik bazkide direnek, hilaren 18a, 19a eta 20a izango dituzte Anoeta estadioan orain duten eserlekua aldatzeko egunak.

ESERLEKUA ALDATU ETA BAZKIDE EGITEKO. Abenduaren 23, 24 edo 26. 24a goizez bakarrik.


ra deitzea nahikoa da aurrez ordua hartu eta zain egon beharra ez izateko. Aipatu azken ekimen hau iaz oso arrakastatsua izan zelako jarri dute martxan aurten ere.



Merkataritza mon,
bizia han.

Merkataritza **jokoa da**, ume-umetatik.
Egunez egun **errealitate** bihurtzen da.
Eta orain, gure gizartearen **etorkizuna** da.
Euskal merkataritza, konfiantzazkoa.

aurrera doan
herria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA
COMERCIO Y TURISMO